



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2015/07/10

Gaur egun, mahastiaren egoera ona da itxuraz, nahiz eta sakonera gutxieneko sailetan eta landaketa berrienetan hasiak diren nabaritzen bero handiak eta euririk eza nabaritzen. Egunokin, arindu egin da jasaten ari garen berotea. Eta, gauzarik onena, eguneko eta gaueko temperatura graduen arteko aldea apur bat handiagoa da, eta, horri esker, landarea bere onera etortzen da gauez, ziklo normalaren arabera betez bere eginkizun biologikoak.

Produkzioari dagokionez, berretsi egiten da tempranillo mahatsaren datuak aurreko uztaldikoen antzekoak direla, handiagoak garnatxa mahatsean eta doi bat txikiagoak biura mahatsean.

Fenologiaren aldetik, mahastiaren egoera mahats mordo itxiari dagokion "J" egoeran dago, ondo garaturik eta osasun bikainean. Urte arrunt batekin alderaturik, 10 eta 15 egun arteko aurrerapena daramagu.

Izurrite eta gaitzei dagokienez, nabarmendu beharrekoa da:

Zurina: sail oso hostotsuren batean ikusi ditugun guneek ez dute eraginik izan, eta arazorik gabe kontrolatu ahal izan dira. Beharrezkoa da landaketa babesturik edukitzea, zeren eta, oraindik ere, arazoak sor baitaitezke kondizioak aldatzen badira. Kontuz hostoak kentzean, eguzkia gutxien hartzen duten aldeetatik egin behar baita (goizeko eguzkia), mahats mordoak erre ez daitezen eta sobera kenduz fotosintesi lana arriskuan jar ez dadin.

Gorrina: nola egoera ez den egokiena gaitz honek mahastia kutsa dezan, tratamenduen arteko tarteak gutxitu egingo ditugu, edota are tratamendua eten ere, harik eta gaitzak garatzeko behar duen egoera eragotzi arte. Ekaitzak izanez gero, edo ekaitza dela-eta alerta jota balego, babesturik eduki beharko dira mahastiak. Adi, beraz, meteorologiari.

Botritisa: gaitza, lehen-lehenik, zeharka kontrolatu behar da, zurinak eta sitsak mahats mordoari kalte egitea eragotziz, zauriak eragiten baitituzte aleetan eta botritisa eragin baitezakete ondotik.

Erinosisa: Mahasti batzuetan, sufrearekin tratatu gabekoetan batik batik, hostoek ohiko mailatuak ageri dituzte, garrantzi ekonomikorik izan ohi ez dutenak.

Hosto sitsa: bigarren belaunaldiaren hegaldia ari da gertatzen. Komeni da tratamendua ematea, baldin eta hautematen bada gune horretan jarduera dagoela ezarritako tranpei esker. Aldundiaren web orriaren kontsulta dezakezue. Aipatu dugu Izurrite honek zer eragin izan dezakeen

ondoren Botritisak jotzeari edo ez jotzeari begira. Nahasketa sexuala eraginez eragozteko teknika hobetsi behar da metodo kimikoen aldean, emaitzak hobeak direlako eta ingurumenari gutxiago erasaten zaiolako.

Armiarma horia: ikusi dira hosto gorritzearen zenbait sintoma tenpranilloaren oinaldeko hostoetan, eta, beraz, tratamendua eman beharko da kasuren batean, hosto galtzea eta ondoriozko kalteak eragozteko. Sintomarik ikusi ezean, ez tratatu.

Eltxo berdea. ikusi dira finkaren batean erasoaren sintomak, orria idortzen ertzetatik hasita. Ez da gomendatzen tratatzea, non eta sintomak ez diren agerian edo ez den tratamenduaren atalasea iritsi (2 intsektu orriko). Mahats mordoaren sitsaren kontrako tratamendua emanaz gero, hautatu eltxoaren kontra ere eraginkorrak diren produktuak.

Laburbilduz, gaur egun, mahastiak mahats ugari du, osasun egoera onean dago, eta oso aurreraturik urte arrunt batekin alderatuz gero.

Landaketa aurreratuz gero, mahats biltzea ere aurreratu egingo da, baina ikusi egin behar zer kondizio ditugun hemendik aurrera.

Adeitasunez,

Guardia, 2015eko uztailaren 10ra.